

IRAIA ELIAS

AMANCAY GAZTAÑAGA

MATRIUSKA



TTAK + KAMIRAZ KOLEKTIBOA

KAMIKAZ KOLEKTIBOAK eta TTA TEATROAK elkarlanean sorturiko antzezlanak.

Donostiako Poltsiko Antzerkia sorkuntza deialdiko proposamen saritua izanik, XXIX. edizioan estreinatutako sorkuntza.

SINOPSIA

Bi zientzilari ikerkuntza betean murgildurik. Sakonera iristeko beharrak ordea, ezustekoz beteriko bidean jarriko ditu. Ez dago atzera bueltarik.

GAIA

Bi pertsonaia hauek euren gorputzetara iristeko bidaia da Matriuska. Ezarritako sisteman bizirauteko, beraien gorputzarekiko harremana etenda dute aspalditik eta, gaur, ikerkuntza honetan sakontzen hasi direnean, euren gorputzarekin egingo dute topo. Emakume gorputzarekin. Gorputz kolektibo batekin. Aurreko emakume guztiek, belaunaldiz belaunaldi informazioz bete duten gorputz horrekin. Emakume isildu, sortzaile, indartsu, bortxatu, ausart, baztertu... guztiek osatzen dute euren gorputza. Ikusi eta sentituko egingo dituzte beraien baitan, gainera.

Historiaren parte diren aurreko emakume guztien gorputzak, izenak eta izanak berreskuratzeko beharraz hitz egiten du antzezlanak.

Umore biziaz ahalduntze bidaia
indartsu baten parte izango da ikuslea.

FITXA TEKNIKOA

Zuzendaritza: Amancay Gaztañaga eta Iraia Elias

Aktoreak: Amancay Gaztañaga eta Iraia Elias

Testua: Amancay Gaztañaga eta Iraia Elias

Kartela: Amancay Gaztañaga

BEHAR TEKNIKOAK

Jolasteko espazio minimoa: 4x4 , hortik aurrera edozein espaziotara egokitu gaitezke.

Argia eta soinua: Guk geuk daramagu eta antzezlanaren barrutik kontrolatzen dugu, beraz espazioan beharko genuken gauza bakarra argi indar sarrera bat da.

Publikoa: Helduentzat sorturiko lana.

Iraupena: 45 minutu inguru.

TALDEEI BURUZ

Lan hau bi taldeen arteko elkarlanaren bigarren lana da. Aurretik ***Agur eta dolore*** pieza motza egin bait genuen elkarrekin.

Bi taldeen lanen inguruko informazio gehiago gure webguneetan izango duzue.

<http://www.kamikazkolektiboa.com>

<http://www.ttakteatroa.org>

Kontaktua: 652767806 (Iraia)





Argazkiak: Eider Iturriaga

NORTZUK GARA?

Amancay Gaztañaga Sagarzazu (Guayaquil-Ecuador, 1980)



2002. urtean lizentziatu zen Madrilgo R.E.S.A.D-en (Real Escuela Superior de Arte Dramático). Urte berdinean goi mailako ikasketak amaitzen ditu Madrilgo Amanuel kontserbatorioan, biolineko irakasle titulua eskuratuz. Madrilen igarotako hamabi urteetan dantza munduan murgiltzen da Laila Rangel eta Eva Chaconen eskutik. Deskansturik gabeko bilaketa horrek Atenasera eramaten du tragedia grekoa arakatzera eta Egiptora dantza faraonikoa ikastera. Gorputza eta buroia nola lotu aurkitu nahian Peter Brook-ekin egiten du topo eta bere konpainiako kide den Hassame Koyaute-ren eskutik Griot-en kontatzeko erak ikasten ditu. Musika eta dantza beti egon dira aktore bilaketa horrekin erabat lotuta. Dantza eskola bat irekiko du Zestoan eta GRISES musika taldeko abeslari bilakatuko da.

Antzerki lanetan mundu osoan biran ibili da Lóm Imprebis taldearen “Quijote” antzeztzen bost urtez. Tanttakarekin “Sonujolearen semearen” munduan galdu da. Kamikaz kolektiboaren sortzaileetako bat izan da eta barruko mamuak atera ditu Uxue Alberdiren “Euli-giro” antzeztuz, besteak beste... Naiz eta azken urteetan inspirazioa zuzendari eta idazle bezala etorri zaion; “Uda gau bateko ametsa”, “Lukurreria, lizunkeria eta heriotzaren erretaula” eta euskal antzerki topaketetan ikustelaren saria irabazi duen “Sweeney” itzuli eta moldatu ditu zestoako Eromen taldean. Telebistan ere ibili da 3txulo programan 4ra-ren pertsonaia antzeztzen eta azken urtean Z U L O laburra estreinatu du Erika Olaizolarekin batera. Egun ArteDramak 2021ean estreinatuko duen antzezlanaren idazten eta zuzentzen dabil.

Iraia Elias Muniain (Zarautz, 1980)



2001ean diplomatu zen irakasle bezala heziketa bereziko espezialitatean, Donostiako EHUn. Era berean antzerkiarekiko interesak Donostiako TAEn antzerki ikasketak egitera bultzatu zuen, baita bere intereseak ziren adar ezberdinetako antzerki ikastaroak egitera ere hantxe. Azken esperientzia Buenos Airesen izan du 2016. urtean, Lecoq-en pedagogian oinarritzen den antzerki sorkuntza eta mugimenduzko CABUIA eskola internazionallean. Urte hauetan guztietan proiektu ezberdinetan hartu izan du parte eta proiektu kuttunen artean daude Ainhoa Alberdirekin batera sortutako TTAk TEATROA (2009) eta bertan eginiko lan ezberdinak. Hala nola *Eta Karmele? Eta oain ze, Bullyng. Begiradak...* Bestetik METROKOADROKA KOLEKTIBOaren parte ere bada eta bertan sortuak ditu *Munduko poesia Kaia*, *Zanbuia!*, *Nor dada Emmy?*, *Zertarako hegoak?* eta *Gabrielen lekua* sentikaria besteak beste. Beste lan batzuen artean daude, *A lurpean* eta *Käffka*-n esaterako. 2019an Chapiro talde portugaldarrak zuzenduriko *Sherezade eta tipularen azalak* lanak Donostia Saria eskuratu zuen. Kamizaz kolektiboarekin elkarlanean, oso maitea duen *Agur eta dolore* pieza motzarekin dabil. Lan honek Pabelloi 6ko euskarazko lan onenaren Kriseilu saria eskuratu zuen 2018an. 2020an hurrentzat sorturiko *Bidaietaz* lana estreinatuko du Beheko Larraine konpainiarekin.

Zinemaren berriz, Koldo Almandozen *Oreina* filmean parte hartu zuen (2017) eta baita Asier Altunaren, *Amama* filmean (2015) ere, 2016ko Goya sarietan Aktore errebelazio moduan izendatua izan zelarik.